



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko otsailaren 11

9. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoaren montepioetako funtzionarioen eskubide pasibo-  
ei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak ([2. or.](#)).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskara-  
ren irakaskuntza eta erabilera arautzekoa. Aurkeztutako zuzenketak ([18. or.](#)).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzkoa**

**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikulua ezarritakoa betez, 2002ko azaroaren 12ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**1. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**1. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN**  
**ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

“1. artikulua. Helburua eta aplikaziorako langile-eremua.

1. 1. Foru lege honen bitartez, Nafarroako administrazio publikoek ondoko idatz-zatian aipatzen diren langileei bermatzen dizkiete beraientzat edo beraien senideentzat bidezkoak diren prestazioak, legean ezartzen den eskubide pasiboen sistemari jarraikiz.

2. Foru lege honetan aurreikusiriko eskubide pasiboen sistema aplikatzeko langile-esparrua da Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean eta Estatuko klase pasiboen araubidean afiliaturik ez dauden Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioek osatzen dutena.

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

**6. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**2. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN**  
**ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

**9. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**3. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN**  
**ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko 1. idatz-zatia honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

“9. artikulua. Kotizatzeke betebeharra.

1. Eskubide pasiboen sistemari kotizatzeke beharturik egonen dira, foru lege honetan ezarritako arauari jarraikiz, sistemari atxikitako funtzionarioak eta, halaber, administrazio publikoak, enplegu-emaileak diren aldetik.

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

**4. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

9. artikuluan hirugarren idatz-zatia gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Nafarroako administrazio publikoek araubide horretan sartuko dituzte, une egokian, enplegu-emaile gisa eta langileen diru-biltzaile gisa ordaindu beharreko kuotak.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuan aintzat ez harturiko gaiak gehitzea.

**10. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****5. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

10.2. artikulua hirugarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

10.2. artikuluko 3. lerrokada honako testu honekin ordeztzea proposatzen da:

“Gizarte Segurantzako edozein araubidetan pentsioa jasotzeko eskubidea sortzen denean, kotizazio aldi horien ondoriozkoa, aukera egin beharko da, dela haiek behar den montepioan aintzat hartzearen alde, aurreko lerrokadan adierazitako ondorioetarako, dela Gizarte Segurantzatik behar den pentsioa jasotzearen alde.”

Zioak: Zentzuzkotzat jotzen da Foru Komunitateko administrazioa edo Nafarroako toki entitateetako montepioetako pentsio-hartzaileek aukeratu ahal izatea onuragarri zaiena, euren hartzeko pasiboak zehazteari begira Gizarte Segurantzari kotizaturiko epeak zenbatzeari dagokionez. Gaur egun ez daukate aukeratzetik.

**11. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****6. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

11. artikulua honako testu honekin ordeztzeko zuzenketa:

“11. artikulua. Kotizazio motak.

Funtzionarioaren kargurako kotizazio tasa haren kotizazio oinarriaren ehuneko 4,8koa izanen da.

Nafarroako administrazio publikoen kotizazio tasa haien langileen kasuan kasuko kotizazio oinarrien ehuneko 25,2koa izanen da; bi kotizazioak foru lege honetan eraturiko araubide berrian sartzera beharturik egonen dira.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

**7. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

11. artikuluari amaieran beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Kotizazio tasa bakarra kotizazio oinarriaren ehuneko 4,8ra edo une horretako ehunekora murriztuko da, Gizarte Segurantzari sartu ondorenekoa”.

Zioak: Montepioak Gizarte Segurantzarekin elkartu bitartean araubide iragankor bat ezartzeko talde honek duen asmoari gehiago egokitzen zaiou.

**12. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****8. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letra honako testu honekin ordeztzeko zuzenketa:

“12. artikulua

1.a) Zerbitzua dela-eta, bidaiak egiteagatik edo nahitaezko lekualdatzearen ondorioz bizitokia aldatzeagatik egindako gastuen ordainak.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

### 13. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

#### 9. ZUZENKETA

##### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

“13. artikulua: Kotizazio oinarrien gutxieneko eta gehieneko mugak.

Kotizazio oinarriek gehieneko eta gutxieneko mugak izanen dituzte maila bakoitzean; zenbateko hauek, alegia:

MAILA	GUTXIENeko MUGA		GEHIENeko MUGA	
	Euroak hilabeteko	Pezetak hilabeteko	Euroak hilabeteko	Pezetak hilabeteko
A	768'90	127.934	2.574'90	428.427
B	637'80	106.121	2.574'90	428.427
C	516'00	85.855	2.574'90	428.427
D	516'00	85.855	2.574'90	428.427
E	516'00	85.855	2.574'90	428.427

Muga horiek urtero gaurkotuko dira, Nafarroako aurrekontuei buruzko legeetan jarduneko funtzionarioen soldatak gaurkotzen diren ehuneko berean.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

### 18. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

#### 10. ZUZENKETA

##### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

“18. artikulua. Borondatezko eszedentzian edo eginkizunez gabeturik dauden funtzionarioen kotizazioak.

1. Interes partikularra dela-eta borondatezko eszedentzian edo eginkizunez gabeturik dauden edo deklaritzen diren funtzionarioek aukeran izanen dute eskubide pasiboen sistema horri atxikirik segitzea sisteman aurreikusitako egoeren estaldu-

rarako, salbu eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batean alta ematen badute, eta bere aldetik egin beharko dituzte kasuan kasuko kotizazioak, osotara.

2. 2. Aukera hori egiteko epea laurogeita hamar egun naturalekoa izanen da, funtzionarioa aurreko idatz-zatian aipatutako egoeretako batean sartzen den unetik, eta kotizazio bereziaren ondorioak epearen hasierako unera atzeratuko dira.

3. Kotizazio tasak, oro har, indardunak izanen dira; foru lege honen 10. artikuluan daude aurreikusiak.

4. Artikulu honetan aurreikusitako kasuetan, funtzionarioaren kotizazio oinarria izanen da egoera horretan sartu aurreko hamabi hilabeteetan izandako oinarrien batez bestekoa, eta oinarri hori urtero gaurkotuko da.

5. 5. Kuota sartu beharko da haren xede den hilabetearen hurrengo hilabete naturaleko lehen-dabiziko bost egunetan.

6. Kotizazio bereziak dituen funtzionarioak galdu eginen du eskubide pasiboen sistema horri atxikirik egoteko eskubidea, arrazoi hauetako edozeinen ondorioz:

a) Hiru hilabeteko kuotak jarraian ez ordaintzeagatik, errekerimenduei kasu egin gabe.

b) Hiltzeagatik.

c) Berak hala erabakita eta montepioari horren berri emanik.

d) Gizarte aurreikuspeneko beste sistema batean alta emateagatik.

e) Norberaren interesaren ondoriozko borondatezko eszedentzia kasuetan, lanpostua gordezko eskubidea galdu izanagatik.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

### 19. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

#### 11. ZUZENKETA

##### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

“19. artikulua. Lanaldi murriztua duten edo aldi baterako ezgaitasun egoeran dauden funtzionarioen kotizazioak.

Lanaldia murriztua duten funtzionarioek edo, aldi baterako ezintasun egoeran daudela-eta, arlo horretan indarra duten arauen aplikazioaren ondorioz ordainsarrietan murrizketa portzentuala dutenek kotizatu beharrekoa izanen da arrazoi horien gatik lansarrietan dituzten murrizketak izan gabe ordainduko beharko zuten berbera, administrazio publikoaren kasuan bezala.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

## 21. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

### 12. ZUZENKETA

#### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

21. artikuluko d) letraren amaieran honako testu hau gehitzeko zuzenketa:

d) Gertaeraren egunetik prestazioak sortu arte jarduneko egoerari dagozkion hartzeak jasoko dira.

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuan aintzat ez harturiko gaiak gehitzea.

## 25. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

### 13. ZUZENKETA

#### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

25. artikulua honako testu honekin ordeztzeko zuzenketa:

“25. artikulua. Pentsioak gaurkotzea.

1. Pentsioen zenbatekoa urtero gaurkotuko da, Nafarroako aurrekontu orokorreko buruzko Foru Legeak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako ezartzen duen ehunekoan.

2. Erretiro pentsioen onuradunek eskubidea izanen dute Nafarroako administrazio publikoetako E mailako jarduneko funtzionarioen hasierako lansariaren baliokidea den gutxieneko pentsioa jasotzeko.

3. Alargun pentsioen onuradunek eskubidea izanen dute lanbide arteko gutxieneko lansariaren zenbatekoaren baliokide den gutxieneko pentsioa jasotzeko; alargun pentsio elkarbanatuen kasuan, onuradun guztien artean banatuko da.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, umezurtz pentsioei, horien onuradunek ez aitarik ez amarik ez badute. Kasu horretan, umezurtz pentsioa jasotzeko eskubidea duten umezurtz batzuk direnean, gutxieneko pentsioaren zenbatekoa umezurtz pentsioen onuradun guztien artean banatuko da.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

## 26. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

### 14. ZUZENKETA

#### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

26. artikulua honako testu honekin ordeztzeko zuzenketa:

“26. artikulua. Pentsioak sortzen dituen egitate.

Kapitulu honetan arautzen diren pentsioak sorrarazten dituen egitatea da foru lege honen aplikazio esparruan sarturik dauden funtzionarioek erretiroa hartzea.

Erretiroa izan daiteke:

a) Nahitaezkoa, besterik gabe deklaratu dena funtzionarioak erretiroa hartzeko ezarriko dagoen adinera ailegatzean, foru lege honen 32. artikuluan aurreikusitako salbuespenekin.

b) Borondatezkoa, alderdi batek eskatuta deklaratu dena, betiere interesatuak hogeita hamabost urtez kotizatu baldin badu gizarte aurreikuspeneko edozein araubidetan (urte horietatik hamabost, gutxienez, aitorturiko zerbitzuenak izanik), edo interesatuak berrogeita hamabost urte beterik izan eta, gutxienez, hogeita hamar urte kotizaturik baditu (urte horietatik hamabost, gutxienez, aitorturiko zerbitzuenak).

c) Ezintasun iraunkorra dela-eta, administrazioak bere kabuz edo alderdi batek eskaturik deklaratuakoa, ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor partzialaren eta osoaren kasuetarako foru lege honetan aurreikusitakoa ezertan eragotzi gabe.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

**29. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**15. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN**  
**ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

29. artikuluko a) letra honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

“29. artikulua. Aitorturiko zerbitzuak.

a) Funtzionarioa alta emanik egon izana Nafarroako Foru Komunitateko bidezko den montepioetako batean, edo foru lege honetan araututako eskubide pasiboen sisteman, administrazio publiko horretan jardunean egonik.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

**30. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**16. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN**  
**ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

30. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

**17. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

30. artikulua aldatzeko zuzenketa. Proposatzen da 30. artikulua ordez testu hau jartzea:

“30. artikulua. Gizarte Segurantzarako kotizazioak.

Foru lege honen aplikazio-eremuan sarturiko funtzionarioek eskubidea izanen dute Gizarte Segurantzako edozein araubidetan izan dituzten kotizazioaldiak aintzat har dakizkien eskubide pasiboen ondorioetarako, baldin eta administrazio publikoei emandakotzat aitortu zaizkien beste

batzuei ez bazaizkie gainjartzen kotizazioaldi horiek.

“Gizarte Segurantzako edozein araubidetan pentsioa jasotzeko eskubidea sortzen dutenean, kotizazioaldi horien ondoriozkoa, aukera egin beharko dute, dela haiek behar den montepioan aintzat hartzearen alde, dela Gizarte Segurantzatik behar den pentsioa jasotzearen alde.”

Zioak: Zentzuzkotzat jotzen da Foru Komunitateko administrazio edo Nafarroako toki entitateetako montepioetako pentsio-hartzaileek aukeratu ahal izatea onuragarrien zaiena, euren hartzeko pasiboak zehazteari begira Gizarte Segurantzari kotizaturiko epeak zenbatzeari dagokionez.

**34. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**18. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN**  
**ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

34. artikulua honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

“34. artikulua. Pentsioa arautzen duen oinarria.

Pentsioa arautzen duen oinarria langileak erretiroa hartzeko unean jasotako oinarritzko lansarietako osatuko dute. Oinarritzko lansariak hauexek dira: mailako soldata, gradua, antzinatasuna gehi mailako osagarria E, D, C eta B mailatarako.

Foru lege honek jasotako eskubide pasiboen sisteman altan edo altari parekatutako egoeran egon gabe pentsiorako eskubidea daukaten funtzionarioei betiere aintzat hartuko zaizkie E mailako gutxieneko kotizazio oinarriak, arau-hutsuneak betetze aldera.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

**35. ARTIKULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**19. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN**  
**ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

35. artikulua honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

“35. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa.

1. Borondatezko erretiroko pentsioaren zenbatekoa foru lege honen 34. artikuluan aurreikusitako oinarri arautzailearen 100eko 100 izanen da, baldin eta eskatzen duen funtzionarioak hogeita hamabost urteko kotizazioa badu, 26. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

2. Borondatezko erretiroa eskatzen duen funtzionarioak foru lege honen 26. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen baditu, baina hogeita hamabost urte baino gutxiagoko kotizazioa badu, pentsioaren ehunekoaren murrizketa izanen du, ehuneko seikoa, hogeita hamabost urteko kotizazioa ailegatzeko falta den zerbitzu-urte bakoitzeko.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

## 20. ZUZENKETA

### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

35. artikuluari amaieran beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Pentsioaren urteko gehieneko zenbatekoak ezin izanen du inoiz ere gainditu Gizarte Segurantzako gehieneko pentsio orokorrerako ezartzen dena.”

Zioak: Gure ustez, funtsezkoa da pentsioaren zenbatekoa ezartzen duten artikuluetan argi gelditzea gure nahia; alegia, pentsioei Gizarte Segurantzako araubidearen gehieneko muga ezartzea.

### **36. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

## 21. ZUZENKETA

### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

36. artikulua honako testu honekin aldatzeko zuzenketa:

“36. artikulua. Bateriaezintasunak.

1. Nahitazko erretiroaren pentsioa jasotzea eta sektore publikoan lanpostu bat edo kargu bat lansariaren truke betetzea bateraezinak dira.

Pentsioa jasotzea etenik geldituko da lanpostu horretan aritu bitartean, baina horrek ez du eraginik izanen berbalorizatzeetan.

2. Erretiroa hartutako funtzionarioak lege honek sortutako sistemari jakinarazi beharko dio sektore publikoan lanpostu edo kargu bat lansariaren truke betetzen duela.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

### **37. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

## 22. ZUZENKETA

### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

37. artikulua honako testu honekin aldatzeko zuzenketa:

“37. artikulua: Betekizunak.

Funtzionarioak eskaturik, borondatezko erretiroa bidezkoa izanen da baldin eta hark honako betekizunetako edozein betetzen badu:

a) Gizarte aurreikuspeneko edozein araubidetan hogeita hamabost urte eman dituela frogatzea; horietatik, gutxienez ere hamabost urte aitorturiko zerbitzuetan edo sistema berri honetara kotizaturikoetan emanak izan beharko ditu.

b) Berrogeita hamabost urteko adinera iritsia izatea eta, gutxienez ere, gizarte aurreikuspeneko edozein araubidetan kotizatzen hogeita hamar urte eman izana; horietatik, gutxienez ere hamabost urte aitorturiko zerbitzuetan edo sistema berri honetara kotizaturikoetan emanak izan beharko ditu.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

### **38. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

## 23. ZUZENKETA

### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

38. artikulua honako testu honekin aldatzeko zuzenketa:

“38. artikulua. Pentsioa arautzen duen oinarria.

Pentsioa arautzen duen oinarria langileak erretiroa hartzeko unean jasotako oinarrizko lansariet osatuko dute. Oinarrizko lansariak hauexek dira: mailako soldata, gradua, antzinatasuna gehi mailako osagarria E, D, C eta B mailatarako.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

### 39. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

#### 24. ZUZENKETA

##### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA** PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

39. artikulua honako testu honekin aldatzeko zuzenketa:

“39. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa.

1. Borondatezko erretiroko pentsioaren zenbatekoa oinarri arautzailearen 100eko 100 izanen da, baldin eta eskatzen duen funtzionarioak hogeita hamabost urteko kotizazioa badu, gizarte aurreikuspeneko edozein araubidetan.

2. Borondatezko erretiroa eskatzen duen funtzionarioak foru lege honen 37. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen baditu, baina hogeita hamabost urte baino gutxiagoko kotizazioa badu, pentsioaren ehunekoaren murrizketa izanen du, ehuneko seikoa, hogeita hamabost urteko kotizaziora ailegatzeko falta den zerbitzu-urte bakoitzeko.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

#### 25. ZUZENKETA

##### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA** PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

39. artikuluari amaieran beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Pentsioaren urteko gehieneko zenbatekoak ezin izanen du inoiz ere gaingitu Gizarte Segurantzako gehieneko pentsio orokorrerako ezartzen dena.”

Zioak: Gure ustez, funtsezkoa da pentsioaren zenbatekoa ezartzen duten artikuluetan argi geldi-

tzea gure nahia; alegia, pentsioei Gizarte Segurantzako araubidearen gehieneko muga ezartzea.

### 40. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

#### 26. ZUZENKETA

##### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA** PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

40. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

### 41. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

#### 27. ZUZENKETA

##### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA** PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

41. artikulua honako testu honekin aldatzeko zuzenketa:

“41. artikulua. Laneko istripuaren kontzeptua.

Laneko istripua da zerbitzuak betetzean edo betetzearen ondorioz funtzionarioak gorputzean jasaten duen lesio oro.

Laneko istripuztat har daitezkeen kasuen definizioa arlo horretako arau indardunetan xedatutakoaren arabera eginen da.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

### 42. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

#### 28. ZUZENKETA

##### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA** PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

42. artikulua honako testu honekin aldatzeko zuzenketa:

“42. artikulua. Lanbideko eritasunaren kontzeptua.



Lanbideko eritasuna da erregelamenduz ezarriko diren zenbait elementu edo gairen eraginez hartutakoa zerbitzuak betetzearen ondorioz.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

#### **46. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

### **29. ZUZENKETA**

#### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

##### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

46. artikuluko 2. idatz-zatia honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“46. artikulua. Ezintasun graduen kalifikazioa.

2. Lanerako ezintasunak baloratzeko Nafarroako epaimahai medikoak txosten bat emanen du, antzemandako ezintasun gradua eta hura eragin zuen arrazoia zehazteko.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

#### **48. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

### **30. ZUZENKETA**

#### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

##### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

48. artikulua honako testu honekin aldatzeko zuzenketa:

“48. artikulua. Oinarri arautzailea.

1. Ezintasun iraunkorraren ondoriozko erretiroko pentsioaren oinarri arautzailea foru lege honetako 31. artikuluan aurreikusiriko nahitaezko erretiro pentsiorako ezarritakoarekin bat zehaztuko da.

2. Laneko istripuak edo lanbideko eritasunak eragindako ezintasun iraunkorreko erretiro pentsioa hura eragin duena gertatu aurreko hamabi hilabeteetan izandako jarduneko lansarien ehuneko ehunekoa izanen da, baina ez dira horien artean kontatuko zerbitzua dela-eta egindako gastuen kalteordainak, ez eta bidaienak edo nahitaezko lekualdatzeek –2bizilekua aldatuta–2 eragindako enak, edo hautapen epaimahaietan parte hartzeagatik, prestakuntza ikastaroak emateagatik edo

aparteko orduen konpentsazioagatik jasotakoak ere.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

#### **49. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

### **31. ZUZENKETA**

#### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

##### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

49. artikulua honako testu honekin aldatzeko zuzenketa:

“49. artikulua. Prestazio ekonomikoak erabateko ezintasun iraunkorraren ondorioz.

1. Erabateko ezintasun iraunkorrak eragindako erretiroaren prestazio ekonomikoa izanen da administrazioetako E mailako funtzionarioen hasierako soldataren zenbateko bereko pentsio bat.

2. Ohiko lanbiderako ezintasuna duten funtzionarioek eskubidea izanen dute bi aukera hauetako bat hartzeko: ezintasunaren ondoriozko erretiroa edo maila bereko beste lanpostu bat hartzea, azken kasu honetan, zein lanpostutarako ezintasuna aitortu zaien, lanpostu horretako lansariak gorderik.

Funtzionarioak beste lanpostu bat hartzea aukeratuz gero, Nafarroako Foru Komunitateko kasuan kasuko administrazio publikoak prozedura ireki beharko du eta horretarako lanpostu huts egokirik ez badago, erretiroa emanen dio, aurreko idatz-zatian aurreikusiriko pentsioari ehuneko hamarra gehiturik.

Beste lanpostu bat hartu behar duen funtzionarioak hilabeteko gehieneko epean jabetu beharko du hartaz, lanpostu berria ematea xedatzen duen ebazpenaren egunetik kontatzen hasita. Hala eginen ez balu, interes partikularraren ondorioz hartutako borondatezko eszedentziaren egoerara iraganen litzateke.

3. Aurreko idatz-zatietan aurreikusitakoa gorabehera, erabateko ezintasun iraunkorraren eraginez erretiroa hartutako funtzionarioari dagokion pentsioa, kotizazio urteen kopurua dela-eta, aurreikusitakoa baino handiagoa denean, onuragarriena emanen zaio.

Aurreko idatz-zatian ezarritakoari jarraikiz kotizazio urteen arabeko pentsioa zehazteko, fun-

tzionarioa aldi baterako ezintasun egoeran egonen zen gehieneko denbora kontatuko da, egoera horretan egiaz egon ez bazen.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

#### **50. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

### **32. ZUZENKETA**

#### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

##### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

50. artikulua honako testu honekin aldatzeko zuzenketa:

“50. artikulua. Prestazio ekonomikoak erabateko ezintasun iraunkorraren ondorioz.

Erabateko ezintasun iraunkorraren eraginez hartutako erretiroari dagokion prestazio ekonomikoa izanen da oinarri arautzailearen ehuneko 100 egiten duen pentsio bat.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

#### **54. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

### **33. ZUZENKETA**

#### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

##### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

54. artikuluko 2. idatz-zatia honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“54. artikulua. Berrikusteko prozedura.

2. Ezintasun gradua berrikusteko espedienteak administrazioak bere kabuz ireki ahalko du edo interesatuak eskatuta, eta lanerako ezintasunak baloratzeko Nafarroako epaimahai medikoak proposamen bat emanen du horren inguruan.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

#### **56. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

### **34. ZUZENKETA**

#### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

##### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

56. artikulutik 68. artikulurainokoak (biak barne) kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

#### **69. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

### **35. ZUZENKETA**

#### **FORU PARLAMENTARI**

#### **BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

##### **ANDREAK AURKEZTUA**

69. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

69. artikulua, 2. idatz-zatia: “Bikotea bereizi edo dibortziatzen denean, edo bizikidetzaren amaierarekin duenean, alargun pentsioa kobratzeko eskubidea izanen du ezkontide legitimoa edo bikotekide egonkorra denak edo izan denak, hildako pertsonarekin bizi izan den denboraren proportzioan, alde batera utzita zein izan ziren bereizi, dibortziatu edo bizikidetzaren amaierarekin arrazoiak. Dena den, kasu horietan ez da alargun pentsiorako eskubiderik izanen baldin eta ezkontide edo bikotekide egonkorrari tratu txarrak ematearen ondoriozko kondena-epai bat badago; betiere, epai hori eman ondoren berriro elkarrekin bizitzeari ekin ez badiote.”

Zioak: Gure aburuz, bikote egonkorretan, bizikidetzaren amaiera parekatu behar zaie banantze edo dibortzio kasuei, eta tratu txarrak izan diren kasuetan ez da sortu behar alargun pentsioa jasotzeko eskubiderik.

**70. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**36. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

70. artikulua honako testu honekin aldatzeko zuzenketa:

“70. artikulua. Oinarri arautzailea.

Bizi osorako alargun pentsioaren oinarri arautzailea ondoko arauen arabera zehaztuko da:

a) Eskubidea sortu duena hil den garaian alta emanda edo hari asimilaturiko egoeran dagoenean, betiere heriotza ez bada lan istripuaren edo lanbide gaixotasunaren ondorioz gertatu, oinarri arautzailea une horretan dagokiona izanen da.

b) Eskubidea sortu duena hil den garaian alta emanda edo hari asimilaturiko egoeran dagoenean, betiere heriotza ez bada lan istripuaren edo lanbide gaixotasunaren ondorioz gertatu, oinarri arautzailea izanen da hark jarduneko egoeran duen ordainsariaren ehuneko ehun adinakoa.”

c) EZ DAGO ZUZENKETARIK.

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

**71. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**37. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

71. artikulua honako testu honekin aldatzeko zuzenketa:

“71. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa.

1. Bizi osorako alargun pentsioaren zenbatekoa, pentsioa sortu duenak kotizatu duen urteen arabera behar den pentsio ehunekoaren arabera, ondoko araei begiratuta finkatuko da:

1. Kotizazioko 20 urte bitarte, ehuneko 55 aplikatuko da.

2. 20 urtetik gorako kotizazio urte bakoitzeko, ehuneko horri ehuneko 1 gehituko zaio, harik eta ehuneko 70era iritsi arte, kotizatzen 35 urte eman dituztenentzat.

2. Aurreko guztia gorabehera, alargun pentsioaren zenbatekoa oinarri arautzailearen 100eko 55 izanen da, sortzaile beretik heldutako alargun-pentsioaren eta zurtasun-pentsioaren onuradunak aldi berean dauden bitartean.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

**38. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

71. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

“3. Aurreko lerroketan aipaturiko ehunekoak Gizarte Segurantzaren araubidean une bakoitzean indarra dueneraino automatikoki handituko direla joko da, bai egitate sortzaileari bai ondorengo gehikuntzei dagokienez.”

Zioak: Beharrezkoa da alargun pentsioak Gizarte Segurantzako gehienekoekin pareka daitezzen xedatzea.

**81. ARTIKULUARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

**39. ZUZENKETA**

**FORU PARLAMENTARI  
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL  
ANDREAK AURKEZTUA**

81. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, gainerako baldintzak betetzen badira, pertsona hori ezkontzeak ez du pentsioa iraungiarazi behar.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**40. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen gehigarria honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“Bigarren xedapen gehigarria. Eskubide pasiboen sistema honek indarra eduki baino lehen zeuden kotizazio aldien tratamendua. Lehengo montepioetako eskubide pasiboen sistemei kotizaturiko urteak foru lege honetan araututako sistemari kotizatutakoak balira bezala hartuko dira ondorio guztietarako, eta, horrenbestez, Nafarroako administrazio publikoei emaniko zerbitzu-urtean moduan zenbatuko dira.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

#### 41. ZUZENKETA

##### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

###### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen gehigarria honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Terrorismo ekintzengatik jasotzen diren ez ohiko pentsioak.

Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioek indarreko araudian ezartzen den moduan ez ohiko pentsioak sortzeko eskubidea izanen dute, terrorismo ekintza bateko biktima gertatzen badira.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

#### 42. ZUZENKETA

##### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

###### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren xedapen gehigarria honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“Laugarren xedapen gehigarria. Eskubide-eskualdaketak Europako Erkidegoetako langileen gizarte aurreikuspeneko sistemaren eta Nafarroako administrazio publikoen montepioen artean.

Aipaturiko montepioetakoren batean garai batean sarturik izan ziren langileen eskubideak Europako Erkidegoetako langileen gizarte aurreikuspeneko sistemaren eta Nafarroako administrazio publikoen montepioen artean eskualdatzeari dagokionez, Gizarte Segurantzaren esparruan horretarako emaniko araudia aplikatuko da. Berezi, Europako Erkidegoen sistemari kasua bada eskualdatu beharreko eskubideen baliokide aktuariala zehazteko, langile horiek kasuan kasuko montepioetan sarturik egon zirenean izandako egiazko ordainsariak hartuko dira abiapuntu gisa,

eta une bakoitzean indarra duten kotizazio eta erretiro arauari jarraituz zehaztuko dira bidezko diren kotizazio oinarriak eta pentsioak.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

#### 43. ZUZENKETA

##### FORU PARLAMENTARI

##### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

##### ANDREAK AURKEZTUA

Seigarren xedapen gehigarriko bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa. “Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan eskubide pasiboak sortzen dituzten funtzionarioei, bai eta lehenagotik montepio horietako erretiro-pentsioen hartzaile zirenei ere, baldin eta apaiz edo lekaide nahiz lekaime izan ondoren sekularizatu badira edo erlijio-profesa eten badute, eskubide pasiboak dagokienez Gizarte Segurantzari kotizatutzat ezagutuko zaizkie apaiz gisa edo erlijio-profesean emandako denbora-epeak, Gizarte Segurantzaren arloan indarra duen araudiak ezarritakoari jarraituz.”

Zioak: Gure ustez, eskubide horiek ezagutu beharrekoak dira, alde batera utzirik zein den norberaren erlijioa.

#### 44. ZUZENKETA

##### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

###### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zortzigarren xedapen gehigarria honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“Zortzigarren xedapen gehigarria. Eskubide pasiboen sistema berria aplikatzen zaien Nafarroako administrazio publikoen montepioetako pentsio-hartzaileen famili laguntza; famili laguntza kontzeptupean dagozkien kopuruak jasotzeko eskubidea izanen dute, indarreko araudiak ezarritakoari jarraituz.”

Zioak: Gobernuak proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

**45. ZUZENKETA**

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
 ANDREAK AURKEZTUA

Hamargarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

Hamargarren xedapen gehigarria. Udal montepioen finantzaketa: Nafarroako Gobernuak Nafarroako aurrekontu orokorren kargura finantzatu du udal montepio guztien kostu osoa.”

Zioak: Gure ustez, toki entitateek ezin dute kostu hori euren gain hartzen segitu.

**46. ZUZENKETA**

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
 ANDREAK AURKEZTUA

Hamargarren xedapen gehigarriari oraingo 2. eta 3. puntuaren artean beste bat gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Udal montepioetako funtzionario bat montepio horretako klase pasiboetako kide bilakatzen denean eta hark jarduten zueneko udalak lanpostu hori Gizarte Segurantzaren araubide orokorrari atxikiri-ko beste funtzionario batekin betetzen badu, udal horrek murriztu egingen du udal montepioei egin behar zien ekarpena, Gizarte Segurantzari funtzionario berriarengatik egiten dion ekarpenaren hein berean.”

Zioak: Toki entitateen egoera ekonomiko makala dela-eta, haien kostuak gehitu behar ez direla deritzogu.

**47. ZUZENKETA**

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
 ANDREAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hau da:

“Xedapen gehigarria (zenbakia).

Nafarroako administrazio publikoen montepioetan eskubide pasiboak sortzen dituzten funtzionarioei, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, baldin eta lanbide-jarduera bereziki arrisku- edo neketsuetan lan egin izan baldin badute, foru lege honetan ezarritako erretiro-adinak murriztuko zaizkie Gizarte Segurantzako kasuan kasuko araubide bereziaren arabera jarduera

haiei dagokien koefizientea jarduera horietan egiazki lan egindako denbora-epari aplikatuzetik suertatuko den epean, eta Gizarte Segurantzako ziurtagiri bidez frogatu ondoren.”

Zioak: Funtzionarioen plantillan badaude euren jardueraren zati bat Potasas de Navarra SA, Potasas de Subiza SA edo Magnesitas bezalako enpresa arriskudunetan eman zuten langileak.

**48. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN  
 ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa, hamabigarrena. Hona testua:

“Hamabigarren xedapen gehigarria. Nafarroako administrazio publikoek, foru lege honetan arauturiko ondorioetarako, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aitorturiko zerbitzu-urte gisa aitortuko dituzte pasiboen araubide horretan sarturiko langileek Gizarte Segurantzari kotizaturiko urteak.”

Zioak: Nafarroako Gobernuak aurkezturiko testuan aipatzen ez diren eta guretzat oso garrantzitsuak diren gai batzuk kontuan hartzea.

**49. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN  
 ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa, hamahirugarrena. Hona testua:

“Hamahirugarren xedapen gehigarria. Nafarroako administrazio publikoetan berritik sartzen diren funtzionarioak foru lege honetan araututako eskubide pasiboen sisteman sartuko dira.”

Zioak: Nafarroako Gobernuak aurkezturiko testuan aipatzen ez diren eta guretzat oso garrantzitsuak diren gai batzuk kontuan hartzea.

**50. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN  
 ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa, hamalagarrena. Hona testua:

“Hamalagarren xedapen gehigarria. Sistema berrian sartzen ez diren gaur egungo montepioe-

tako funtzionarioei bermatzen zaie euren pentsioak gaurkotuko direla Nafarroako aurrekontuei buruzko legeetan pentsioak gaurkotzen diren ehuneko berean.”

Zioak: Nafarroako Gobernuak aurkezturiko testuan aipatzen ez diren eta guretzat oso garrantzitsuak diren gai batzuk kontuan hartzea.

## 51. ZUZENKETA

### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa, hamabosgarrena. Hona testua:

"Hamabosgarren xedapen gehigarria. Foru lege honetan jasotako eskubide pasiboan araubidean alta emanda edo hari asimilatutako beste egoera batean dauden funtzionarioek, baldin eta nahitaezko jubilazio-adinera iritsi ondoren hamabost urteko zerbitzuak ez baina bai hamabost urteko kotizazioa aitorturik badute, pentsioa izateko eskubidea izanen dute, hain zuzen ere foru lege honetan finkaturiko kopurua.”

Zioak: Nafarroako Gobernuak aurkezturiko testuan aipatzen ez diren eta guretzat oso garrantzitsuak diren gai batzuk kontuan hartzea.

## 52. ZUZENKETA

### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarria. Nafarroako administrazio publikoen montepioetan eskubide pasiboak sortzen dituzten funtzionarioei, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, baldin eta lanbidejarduera bereziki arriskutsu edo neketsuetan lan egin izan baldin badute, foru lege honetan ezarritako erretiro-adinak murriztuko zaizkie Gizarte Segurantzako kasuan kasuko araubide bereziaren arabera jarduera haiei dagokien koefizientea jarduera horietan egiazki lan egindako denbora-epetari aplikatuzetik suertatuko den epean, eta Gizarte Segurantzako ziurtagiri bidez frogatu ondoren.”

Zioak: Gai zehatz honetan Gizarte Segurantzako araubide orokorrarekin asimilatzea.

## 53. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO

#### DE NAVARRA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Lehena. Nafarroako Gobernuak nazioko Gobernuarekin negoziatuko du foru lege honek ezartzen duen sistema iragankorra Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartzeari, erreferentzia gisa hartuz 1994an MUNPAL sartzeko baldintzak.”

Zioak: Gure proposameneko giltzarria: araubide iragankor bat.

## 54. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO

#### DE NAVARRA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabete epean, batzorde bat eratuko da, Nafarroako Gobernuaren eta funtzio publikoko sindikatuen ordezkariak osatua, zeinak honako gai hauek aztertu eta taxutuko baititu, ondoren arau moduan formulatuak izateko:

1. Katalogo bat sortzea, arrisku edo zailtasun bereziko lanbideena, 55 urtetik aurrerako erretiro aurreratua aplikatu dakiekeenena.

2. Famili eta lan bizitza bateragarri egiteko neurri gisa lanaldia ehuneko 50 murrizten denean kotizazio oinarriaren ehuneko ehun mantentzeko formula taxutzea.

3. Egoera argitzea eta foru lege honek indarra hartu aurretik eragindako pentsiorik baxuenetan egin beharreko balizko hobekuntzak zehaztea.”

Zioak: Garrantzitsuak iruditzen zaizkigun gai batzuk hobetu beharra, lege proiektuan soluziorik ez daukatena.

**XEDAPEN IRAGANKORREI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**55. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen iragankorra testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“Lehen xedapen iragankorra. 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea izanen da erretiratzeko unean foru lege hau aplikatuz zegokiokeenaren ehuneko ehun adinakoa.”

Zioak: Nafarroako Gobernuak aurkezturiko testuarekin ados ez egotea.

**56. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorrari idatz-zati berri bat gehitzeko zuzenketa:

“3. Foru lege honetan jasotako kotizazio- eta biziberritze-oinarriak gaurkotu eta hobetzeko bermeak ez zaizkio aplikatuko sistema berria aukeratzeko ez duten funtzionarioei. Halaber, Gizarte Segurantzako gehieneko pentsioa gainditzen duten aurreko sisteman sorturiko pentsioen zenbatekoa izoztuta utziko da.”

Zioak: Argitzea lege honen eraginetatik onura nork lor dezakeen eta nork ez.

**57. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen iragankorreko 1. idatz-zatiko 1. lerrokada honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“Nafarroako administrazio publikoetako montepioei atxikirik dauden funtzionarioek, baldin eta pentsioa sortzeko unean foru lege honetan aurreikusitako eskubide pasiboen sistemak erretiroa eskuratzeko eskatzen zituen baldintzak betetzen badituzte, sei hilabeteko epe bakarra eta luzaezina izanen dute hura indarrean sartzeko denetik,

pentsioa sistema honen arauen arabera ezar dakien hautatzeko.”

Zioak: Aukera hori funtzionario batzuei eman eta besteei ukatuz eginiko bidegabekeria saihestea; izan ere, araubide honek indar hartzeko izandako berandutza ezin dakieke egotz erretiratuei.

**58. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen iragankorreko 1. idatz-zatiari beste lerrokada bat, bigarrena, gehitzeko zuzenketa. Honakoa da testua:

“Aurreko lerrokadak aipatzen duen aukera egiteko eskubidea aplikatu ahalko zaie 1985eko urtarrilaren 1etik aurrera eragindako pentsioen titularrei, baldin eta lan-istripuaren, lanbide-eritasunaren, lan orotarako ezgaitasunaren, baliaezintasun handiaren edo horiei asimilaturiko kasuen ondoriozkoak badira.”

Zioak: Bereizketa egitea borondatezko erretiroaren eta funtzionarioaren borondatez kanpokoak diren arrazoien ondoriozkoaren artean, eta bidegabeki ez jokatzea aukera egin lezaketenekiko.

**59. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor hau gehitzeko zuzenketa:

“Zazpigarren xedapen iragankorra:

Gizarte Segurantzaren araubidean egon eta Nafarroako administrazio publikoetan lanean ari diren langileek, Nafarroako aurrekontu orokorreko buruzko ekainaren 23ko 9/1992 Foru Legeko 16. artikuluan eta abenduaren 30eko 13/1993 Foru Legeko 14. artikuluan ezarritako araubideei jarraituz, aukera izanen dute foru lege honetan ezarritako eskubide pasiboen araubidean sartzeko, indarra hartu eta sei hilabeteko epean.”

Zioak: Nafarroako Gobernuak aurkezturiko testuarekin ados ez egotea.

**60. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankor berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen iragankor berria. Nafarroako administrazio publikoek foru lege honetan araututako pasiboen sistemari egin beharreko ekarpena dela eta, Nafarroako Gobernuak kapitalizazio plan bat egin beharko du, non administrazio horiek egin beharreko ekarpenetarako baldintza eta epeak zehaztuko diren; plan horretan, gainera, jarduneko langileen kotizazioetatik ondorioztatzen diren dirusarrerak sartuko dira, bai eta behar den kapitalaz gainera, administrazio horien kotizazio gisa egin beharreko ekarpenak ere.

Kapitalizazio plana ukitutako administrazio publikoen parte-hartzearekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren lankidetzarekin landuko da. Nafarroako Gobernuak onetsi ondoren, Nafarroako Parlamentura igorriko da, ezagut dezan, foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean.

Kapital ekarpenen aurreikuspenak aurrekontu ekitaldi bakoitzean jaso beharko dira, kapitalizazio planean aurreikusitako kopuruen arabera.”

Zioak: Foru Komunitatearen diru publikoentzat hain kostu handia ez duen finantzaketa-sistema bat, hala nola kapitalizazio-sistema bat, aintzat hartzea.

**TITULU ETA IDAZPURUEI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****61. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Legearen titulua aldatzeko zuzenketa. Tituluaren ordezkari honako testua ipintzea:

“Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoa.”

Zioak: Montepioak Gizarte Segurantzarekin elkartu bitartean araubide iragankor bat ezartzeko talde honek duen asmoari gehiago egokitzen zaio.

**62. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

I. titulua aldatzeko zuzenketa. Idazpurua honako testu honekin ordezkari proposatzen da: “Eskubide pasiboen sistema iragankorraren arau orokorrak”.

Zioak: Montepioak Gizarte Segurantzarekin elkartu bitartean araubide iragankor bat ezartzeko talde honek duen asmoari gehiago egokitzen zaio.

**63. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua idazpurua honako testu honekin ordezkari zuzenketa:

“3.artikulua. Prestaziorako eskubidea.”

Zioak: Nafarroako Gobernuak aurkezturiko testuarekin ados ez egotea.





---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzekoa**

*AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikulua ezarritakoa betez, 2002ko irailaren 30eko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Biltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**I. TITULUARI**  
**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**1. ZUZENKETA**

**FORU PARLAMENTARI**  
**MILAGROS RUBIO SALVATIERRA**  
**ANDREAK AURKEZTUA**

I. titulua aldatzeko zuzenketa. Izenburua eta bertako hiru artikulua ordeztu du xede. Honako testu hau izanen luke:

“I. titulua: Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaskuntza

1. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak bai gaztelaniaz bai euskaraz emanen ditu izaera ofiziala eta Estatuko lurralde osorako balioa duten unibertsitate tituluak lortzeko ikasketak planetan orain diren eta gero batean izaten diren irakaskuntza guztiak (Unibertsitateen Kontseiluak edo Unibertsitatea Koordinatzeko Kontseiluak homologatutako tituluak) eta hautaketa libreko irakasgai guztiak, baldin eta behar adinako eskaria badago, unibertsitateak berak ezarritako gutxienezko ehunekoei jarraituz, zeinek antzekoak izan beharko

baitute bai gaztelaniaz bai euskaraz eman beharreko irakasgaietarako.

2. artikulua. Euskararen garapena delarik helburu, Nafarroako Unibertsitate Publikoak curriculum lerroak edo bestelako ikasketak jarriko ditu hizkuntza horretan, titulu berekiak lortze aldera. Halaber, hizkuntza horretan zientzia, kultura eta josteta arloko jarduerak gara daitezzen sustatuko du.

3. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak irakaskuntza lerro elebidunak jarriko ditu irakaskuntzarako, euskarazko irakaskuntzarako beharrezkoak diren tituludunei prestakuntza egokia eskaintzeko.

4. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskarazko irakaskuntza ofizialak emanen ditu Euskal Filologiako titulazioan.

5. artikulua. Irakasleak, ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak kontratatzeko, euskaraz jakitea nahitaezkoa izanen duen haien ehuneko bat finkatuko da, euskarazko irakaskuntza eta ikerketaren eta euskararen erabileraren esparruan egon daitezkeen eta lege honetatik erator daitezkeen beharrezko erantzutearren.”

Zioak: Bermea ematea euskaraz ikasi ahal izan daitezzen bai enborreko irakasgaiak, bai aurrerakoak bai eta hautaketa librekoak ere, baldin eta, gaztelaniarako erabiltzen diren irizpide berei jarraituz, behar adinako eskaria baldin badago.

Euskaraz egin daitezkeen titulu berekiak gartzeta eta euskarazko ikerketa eta jardura kulturalen garapena sustatzea.

Gure ustez, irakaskuntzaren eskaintzak ikaslearen eskariaren arabera izan behar du, eta ez hezkuntza-sistemak beharra izatearen edo ez izatearen arabera.

Euskal Filologiako ikasketak egiteko aukera eskaintzea interes handikoa litzateke euskarazko eta euskarari buruzko ikerketa eta irakaskuntza sustatu eta hobetzearen ikuspegitik, eta gure ustez Nafarroak gaur egun duen beharrizan handi bati erantzunen litzaioke.

Lege honek jasotzen dituen xedapenak abiarazteko, euskaraz dakiten irakasle, ikertzaile eta zerbitzuetako langileak kontratatu behar dira.

## 2. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
ANDREAK AURKEZTUA

1. artikulua ordeztuko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“1. artikulua. Lege honen helburua.

1. Foru lege honen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean eskainitako goi mailako irakaskuntzan euskararen erabilera arautzea.

2. Ikasle orok eskubidea dauka unibertsitate-ikasketak bai euskaraz bai gaztelaniaz egiteko.

3. Horretarako, Parlamentuak eta Foru Gobernuak behar diren neurriak hartuko dituzte Nafarroako unibertsitate-sisteman elebitasuna pixkanaka orokortzeko. Zehazki, eta hezkuntza euskaraz izateko eskubidea eraginkor egiteko xedez, bi erakundeek, unibertsitateekin lankidetzan, irakasleak pixkanaka euskalduntzeko bitartekoak ezarriko dituzte.”

Zioak: Lege honen izpirituari gehiago egokitzaren zioen testu bat proposatzea.

## 3. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
ANDREAK AURKEZTUA

2. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Araudi hori aipatu beharrik ez dago.

## 4. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
ANDREAK AURKEZTUA

3. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 2. artikuluari aurkezturiko zuzenketa-kin koherenteak izatearren.

## II. TITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

### 5. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**MILAGROS RUBIO SALVATIERRA**  
ANDREAK AURKEZTUA

II. titulua aldatzeko zuzenketa. Izenburua eta bertako bi artikulua ordeztzea du xede. Honako testu hau izanen luke:

“II. titulua: Goi mailako hezkuntzako beste ikastetxe publiko batzuetako irakaskuntza.

6. artikulua. Foru lege honetako xedapenak Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean orain diren edo izan daitezkeen goi mailako eta unibertsitate mailako hezkuntzako ikastetxe publiko guztietan aplikatuko dira.”

Zioak: Lege honetako neurriak goi eta unibertsitate mailako irakaskuntza publiko osora hedatzea.”

### 6. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**IGOR ARROYO LEATXE**  
JAUNAK AURKEZTUA

4. artikulua testuaren ordeztzea honako hau proposatzen da:

“4. artikulua. Era berean, ezagutu egiten zaie hezkuntza komunitateko kideei unibertsitate-administrazioan beraien komunikazioak, eginkizunak eta lana euskaraz egiteko duten eskubidea.”

Zioak: Zuzenketa hau, bai eta parlamentari honek aurkezturiko gainerakoak ere, funtsezko hiru arrazoiren ondorioa dira:

Lehenik eta behin, PSNk aurkezturiko lege proposamenak argudiatzen duenez, -2lehenago Gobernuak aurkezturiko lege proiektuak ere halaxe zioen-2, unibertsitatean euskara arautu gabe omen dago. Hori, ordea, ez da inondik ere horrela. Lanpostu elebidun baterako deialdiari aurkeztutako errekurtsioa zela eta, Nafarroako Auzitegi Nagusiak, 1999ko otsailaren 25ean emaniko epai batean, honela zioen besteak beste:

“NUPek Iruñean dauka egoitza, hots, eremu mistoan, baina ematen duen zerbitzuak Foru

Komunitateko lurralde guztia hartzen du; beraz, Unibertsitateko estatutuek, euskara dela eta, indarrean diren legeak aipatzen dituztenean, ulertu behar da euskarari buruzko legeak ematen dituen araeuz ari dela, zeinak aplikazio orokorrekoak baitira; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen lege batek bereziki arautu dezan euskararen erabilpena unibertsitateko irakaskuntzan”.

“Euskara irakaskuntzara gutxinaka, progresiboki eta nahikoa dela ekarriko da, zentroetan euskarazko irakaskuntzako lerroak sortuz eskatzen dutenentzat.”

“[Justifikatuta dago] euskarazko hezkuntzalarro bat sortzea gaztelaniazko bat dagoeneko baden ezagutza-arlo batean.”

Baieztapen horiek argi eta garbi erakusten dute PSNk erabilitako argudioa aitzakia bat besterik ez dela. Arazoa ez da unibertsitatean euskara legez araututa ez egotea; arazoa da egungo araeuk, euskarari buruzko legean eta NUPeko Estatutuetan baitaude jasoak, ez direla PSNren gustukoak. Eta, beraz, euskarari buruzko legean ezarritakoarekin alderatuta –2berez ere nahiko motz geratzen den legea–2, atzerapausoa da.

Bigarrenik, PSNk proposaturiko araubidea atzerakoia da, inondik ere. Egiten dituen proposamenen bitartez, kosta ahala kosta lortu nahi du ikasle euskaldunei euren ikasketak euskaraz egitea eragozte. PSNk, lege proposamen honen bidez, euskarazko irakaskuntza hautapen libreko kredituetara eta, asko bailitzan, gehienez ere irakaskairen bat gehiagora mugatu nahi du, eta are gehiago: irakasle-ikasketetako euskarazko lerroak izateko ere Nafarroako Parlamentuaren baimena eskarazi nahi du.

Hirugarrenik, PSNren proposamenak ez du inolako errespeturik agertzen unibertsitate-autonomiaren printzipioarekin. Unibertsitatearen alorrean, botere publikoen jardunak mugatu behar du unibertsitateko erkidegoaren eskubideak bermatzera eta, unibertsitate publikoaren kasuan, behar diren funtsak helaraztera. Lege proposamen baten bitartez euskararen normalizazioari mugak eta gehienekoak ezartzea unibertsitate-autonomiaren esparruan eskua sartzea da, nafarron kultur ondareari eraso egiteaz gain.

Parlamentari honek aurkezturiko zuzenketa hizkuntza-eskubideen eta unibertsitate-autonomiaren errespetuan oinarriturik daude.

## 7. ZUZENKETA

### FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“4. artikulua.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta existitzen diren goi-mailako irakaskuntzako eta unibertsitate irakaskuntzako ikastetxe publikoek bermatuko dute administrazio-zerbitzuak eta irakaskuntzaz bestekoak Nafarroako bi hizkuntzetan ematen direla.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta goi-mailako irakaskuntzako eta unibertsitate irakaskuntzako ikastetxe publikoen korporazio- eta erakunde-irudiak eta herritarrei erantzuteko zerbitzuek betiere Nafarroako Foru Komunitatearen izaera elebiduna errespetatuko dute.”

Zioak: Nafarroako Unibertsitate Publikoak bi hizkuntzetan eman behar ditu bere administrazio-zerbitzuak eta irakaskuntzaz bestekoak, eta herritarrei erantzuteko ere bi hizkuntzak erabiliko ditu, herritarren artean bereizkeriarik ez sortzeko.

## 8. ZUZENKETA

### FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“Nafarroako Unibertsitate Publikoak berariazko programak eginen ditu euskararen erabilera unibertsitate irakaskuntzan, ikerketa zientifikoan eta administrazio- nahiz zerbitzu-jardueran normalizatzeko, berdintasun- eta kalitate-baldintzetan.”

Zioak: Euskararen erabileraren normalizazioa errazteko eta bermatzeko programak egitea beharrezkoa da, irakaskuntzaren, ikerketaren eta administrazio- nahiz zerbitzu-jardueraren esparruan.

### III. TITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

#### 9. ZUZENKETA

##### FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

III. titulua aldatzeko zuzenketa. Izenburua eta bertako hiru artikulua ordeztea du xede. Honako testu hau izanen luke:

“III. titulua. Zerbitzu administratiboak.

6. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta foru lege honek indarra hartzen duenean dauden edo gero batean sortzen diren goi mailako eta unibertsitateko irakaskuntzako ikastegi publikoek ematen dituzten zerbitzu administratiboetan eta irakaskuntzaz bestekoetan, euskararen erabilera Nafarroako Unibertsitate Publikoko gaur egungo estatutuetan jasotako xedapenek arautuko dute.”

7. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta oraingo edo gero bateko goi mailako eta unibertsitateko irakaskuntzako ikastegi publikoen irudi korporatibo eta instituzionala erabiltzeari dagokionez eta zentro horiek herritarrei ematen dieten zerbitzuari dagokionez, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren gaur egungo estatutuek xedatzen dutena izanen da arau.”

Zioak: Estatutu horiek gaztelania eta euskara erabiltzeari buruzko zenbait eskubide ezartzen dituzte, unibertsitateko erkidegoaren hizkuntza-eskubideak bermatzen dituztenak; izan ere, besteak beste, ezartzen dute “...gaztelania eta euskara erabiltzeko eskubidea, eta... inor ez da bereiztua izango”, eta bermatzen dute “euskara eta gaztelania batera erabil daitezten... ondokoean: barru eta kanpoko erabilerako administrazio-agirietan,...”.

#### 10. ZUZENKETA

##### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

“6. artikulua. 1. Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskarak hurrengo arloetan izanen duen araubidea ezarriko du bere Estatutuetan, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen printzipioekin bat betiere: ikasketa-planetan, curriculumetan

eta ematen dituen irakaskuntzetan, ematen dituen zerbitzuetan eta unibertsitateko komunitateko kide orekin sortzen dituen harremanetan.”

2. Euskarazko irakaskuntzak borondatezkotasunaren printzipioari jarraikiz gauzatuko dira; horrela, curriculumeko zenbait enborreko ikasgai eta aukerako ikasgai hizkuntza horretan ikasteko aukera emanen da, gai horretako hiztegi tekniko eta hizkera barneratu ahal izateko.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak curriculum bakoitzean ezarriko du enborreko zer oinarriko irakaskai beharko diren aipatu helburuak lortzeko, kontuan hartuz behar soziala, benetako eskaria eta prestatutako irakasleen eskuragarritasuna.”

Zioak: Proposatutako testuarekin ados ez egoitea.

#### 11. ZUZENKETA

##### FORU PARLAMENTARI IGOR ARROYO LEATXE JAUNAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

“6. artikulua. Unibertsitateko ikasleei aitortzen zaie hala eskatzen badute euren ikasketak osoki euskaraz egiteko daukaten eskubidea.”

Zioak: Zuzenketa hau, bai eta parlamentari honek aurkezturiko gainerakoak ere, funtsezko hiru arrazoiren ondorioa da:

Lehenik eta behin, PSNk aurkezturiko lege proposamenak argudiatzen du, lehenago Gobernuak aurkezturiko lege proiektuak egiten zuen bezalaxe, unibertsitatean euskara arautu gabe omen dagoela. Hori, ordea, ez da inondik ere horrela. Lanpostu elebidun baterako deialdiari aurkeztutako errekurtsioa zela eta, Nafarroako Auzitegi Nagusiak, 1999ko otsailaren 25ean emaniko epai batean, honela zioen besteak beste:

“NUPek Iruñean dauka egoitza, hots, eremu mistoan, baina ematen duen zerbitzuak Foru Komunitateko lurralde guztia hartzen du; beraz, Unibertsitateko estatutuek, euskara dela eta, indarrean diren legeak aipatzen dituztenean, ulertu behar da euskarari buruzko legeak ematen dituen arauak ari dela, zeinak aplikazio orokorrekoak baitira; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen lege batek bereziki arautu dezan euskararen erabilpena unibertsitateko irakaskuntzan”.

“Euskara irakaskuntzara gutxinaka, progresiboki eta nahikoa dela ekarriko da, zentroetan eus-

karazko irakaskuntzako lerroak sortuz eskatzen dutenentzat.”

“[Justifikatuta dago] euskarazko hezkuntza-lerro bat sortzea gaztelaniazko bat dagoeneko baden ezagutza-arlo batean.”

Baieztapen horiek argi eta garbi erakusten dute PSNk erabilitako argudioa aitzakia bat besterik ez dela. Arazoa ez da unibertsitatean euskara legez araututa ez egotea; arazoa da egungo arauak, euskarari buruzko legean eta NUPeko Estatutuetan baitaude jasoak, ez direla PSNren gustukoak. Eta, beraz, euskarari buruzko legean ezarritakoarekin alderatuta –2berez ere nahiko motz geratzen den legea–2, atzerapausoa da.

Bigarrenik, PSNk proposaturiko araubidea atzerakoia da, inondik ere. Egiten dituen proposamenen bitartez, kosta ahala kosta lortu nahi du ikasle euskaldunei euren ikasketak euskaraz egitea eragozteko. PSNk, lege proposamen honen bidez, euskarazko irakaskuntza hautapen libreko kredituetara eta, asko bailitzan, gehienez ere irakaskairen bat gehiagora mugatu nahi du, eta are gehiago: irakasle-ikasketetako euskarazko lerroak izateko ere Nafarroako Parlamentuaren baimena eskarazi nahi du.

Hirugarrenik, PSNren proposamenak ez du inolako errespeturik agertzen unibertsitate-autonomiaren printzipioarekiko. Unibertsitatearen alorrean, botere publikoen jardunak mugatu behar du unibertsitateko erkidegoaren eskubideak bermatzera eta, unibertsitate publikoaren kasuan, behar diren funtsak helaraztera. Lege proposamen baten bitartez euskararen normalizazioari mugak eta gehienekoak ezartzea unibertsitate-autonomiaren esparruan eskua sartzea da, nafarron kultur ondareari eraso egiteaz gain.

Parlamentari honek aurkezturiko zuzenketak hizkuntza-eskubideen eta unibertsitate-autonomiaren errespetuan oinarriturik daude.

## 12. ZUZENKETA

### FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“Nafarroako Unibertsitate Publikoak Foru Komunitateko bi hizkuntzetan emanen ditu izaera ofizialeko unibertsitate-tituluak eskuratzeko ikasketak-planetan agertzen diren irakasgai guztiak.”

Zioak: Irakaskuntza Foru Komunitateko bi hizkuntzetan egiten dela bermatzea.

## 13. ZUZENKETA

### NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordezteko proposatzen da:

“7. artikulua. Irakasle-ikasketetan soilik ezarri ahalko da euskarazko lerro elebakarra, hezkuntza sistemaren beharrei aurre egiteko eta euskarazko edo euskararen irakaskuntza emanen dutenak egoki prestatzeko.”

Zioak: Proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

## 14. ZUZENKETA

### FORU PARLAMENTARI IGOR ARROYO LEATXE JAUNAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordezteko proposatzen da:

“Unibertsitateak aukera emanen du izaera ofiziala eta Estatuko lurralde osorako balioa duten unibertsitate tituluak eskuratzeko irakasgai guztiak euskaraz ikasteko, bai eta berezko tituluak lortzeko ere.

Zioak: Zuzenketa hau, bai eta parlamentari honek aurkezturiko gainerakoak ere, funtsezko hiru arrazoiren ondorioa da:

Lehenik eta behin, PSNk aurkezturiko lege proposamenak argudiatzen du, lehenago Gobernuak aurkezturiko lege proiektuak egiten zuen bezalaxe, unibertsitatean euskara arautu gabe omen dagoela. Hori, ordea, ez da inondik ere horrela. Lanpostu elebidun baterako deialdiari aurkeztutako errekurtsioa zela eta, Nafarroako Auzitegi Nagusiak, 1999ko otsailaren 25ean emaniko epai batean, honela zioen besteak beste:

“NUPek Iruñean dauka egoitza, hots, eremu mistoan, baina ematen duen zerbitzuak Foru Komunitateko lurralde guztia hartzen du; beraz, Unibertsitateko estatutuek, euskara dela eta, indarrean diren legeak aipatzen dituztenean, ulertu behar da euskarari buruzko legeak ematen dituen arauak ari dela, zeinak aplikazio orokorrekoak baitira; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen lege

batek bereziki arautu dezan euskararen erabilpena unibertsitateko irakaskuntzan”.

“Euskara irakaskuntzara gutxinaka, progresiboki eta nahikoa dela ekarriko da, zentroetan euskarazko irakaskuntzako lerroak sortuz eskatzen dutenentzat.”

“[Justifikatuta dago] euskarazko hezkuntzalerro bat sortzea gaztelaniazko bat dagoeneko baden ezagutza-arlo batean.”

Baieztapen horiek argi eta garbi erakusten dute PSNk erabilitako argudioa aitzakia bat besterik ez dela. Arazoa ez da unibertsitatean euskara legez araututa ez egotea; arazoa da egungo arauak, euskarari buruzko legean eta NUPeko Estatutuetan baitaude jasoak, ez direla PSNren gustukoak. Eta, beraz, euskarari buruzko legean ezarritakoarekin alderatuta –2berez ere nahiko motz geratzen den legea–2, atzerapausoa da.

Bigarrenik, PSNk proposaturiko araubidea atzerakoia da, inondik ere. Egiten dituen proposamenen bitartez, kosta ahala kosta lortu nahi du ikasle euskaldunei euren ikasketak euskaraz egitea eragozte. PSNk, lege proposamen honen bidez, euskarazko irakaskuntza hautapen libreko kredituetara eta, asko bailitzan, gehienez ere irakaskairen bat gehiagora mugatu nahi du, eta are gehiago: irakasle-ikasketetako euskarazko lerroak izateko ere Nafarroako Parlamentuaren baimena eskarazi nahi du.

Hirugarrenik, PSNren proposamenak ez du inolako errespeturik agertzen unibertsitate-autonomiaren printzipioarekiko. Unibertsitatearen alorrean, botere publikoen jardunak mugatu behar du unibertsitateko erkidegoaren eskubideak bermatzera eta, unibertsitate publikoaren kasuan, behar diren funtsak helaraztera. Lege proposamen baten bitartez euskararen normalizazioari mugak eta gehienekoak ezartzea unibertsitate-autonomiaren esparruan eskua sartzea da, nafarron kultur ondareari eraso egiteaz gain.

Parlamentari honek aurkezturiko zuzenketak hizkuntza-eskubideen eta unibertsitate-autonomiaren errespetuan oinarriturik daude.

## 15. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
ANDREAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“Nafarroako Unibertsitate Publikoak gaztelaniaz irakatsi beharreko ikasketa-planetan euskaraz irakatsiko diren hautapen libreko ikasgaiak sartuko ditu”.

Zioak: Ikasketarik gehienak gaztelaniaz egin arren baten bat euskaraz ikasi nahi duten ikasleei hautapen libreko ikasgaiak euskaraz ikasteko aukera eskaintzea.

## 16. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
ANDREAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“Aurreko artikuluetan jasotako arauak existitzen diren goi-mailako hezkuntzako eta unibertsitate-hezkuntzako ikastetxe publikoei ere aplikatuko zaizkie”.

Zioak: Legeko artikuluen aplikazioa aipaturiko ikastetxeei hedatzeko beharrezana.

## 17. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**IGOR ARROYO LEATXE**  
JAUNAK AURKEZTUA

Titulu bat gehitzeko zuzenketa.

“IV. Titulua.

9. artikulua. Aurreko artikuluetan bilduriko arauak ahalik eta eperik laburrenean betetzeko helburuarekin, NUPek hizkuntza normalizatorako planak prestatuko ditu, bost urtekoak, eta Nafarroako Parlamentuak horretarako behar diren diru baliabideak ezarriko ditu. Hizkuntza normalizatorako plan horietan euskarazko eskaintza akademikoa gauzatzen duten bestelako unibertsitateekin edo unibertsitate enteekin lankidetzan aritzea aurreikusiko da.

Zioak: Zuzenketa hau, bai eta parlamentari honek aurkezturiko gainerakoak ere, funtsezko hiru arrazoiren ondorioa da:

Lehenik eta behin, PSNk aurkezturiko lege proposamenak argudiatzen du, lehenago Gobernuak aurkezturiko lege proiektuak egiten zuen bezalaxe, unibertsitatean euskara arautu gabe omen dagoela. Hori, ordea, ez da inondik ere horrela. Lanpostu elebidun baterako deialdiari aurkeztutako errekurtsioa zela eta, Nafarroako

Auzitegi Nagusiak, 1999ko otsailaren 25ean emandako epai batean, honela zioen besteak beste:

“NUPek Iruñean dauka egoitza, hots, eremu mistoan, baina ematen duen zerbitzuak Foru Komunitateko lurralde guztia hartzen du; beraz, Unibertsitateko estatutuek, euskara dela eta, indarrean diren legeak aipatzen dituztenean, ulertu behar da euskarari buruzko legeak ematen dituen arauetz ari dela, zeinak aplikazio orokorrekoak baitira; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen lege batek bereziki arautu dezan euskararen erabilpena unibertsitateko irakaskuntzan”.

“Euskara irakaskuntzara gutxinaka, progresiboki eta nahikoa dela ekarriko da, zentroetan euskarazko irakaskuntzako lerroak sortuz eskatzen dutenentzat.”

“[Justifikatuta dago] euskarazko hezkuntzalarro bat sortzea gaztelaniazko bat dagoeneko baden ezagutza-arlo batean.”

Baieztapen horiek argi eta garbi erakusten dute PSNk erabilitako argudioa aitzakia bat besterik ez dela. Arazoa ez da unibertsitatean euskara legez araututa ez egotea; arazoa da egungo arauak, euskarari buruzko legean eta NUPeko Estatutuetan baitaude jasoak, ez direla PSNren gustukoak. Eta, beraz, euskarari buruzko legean ezarritakoarekin alderatuta –berez ere nahiko motz geratzen den lege–, atzerapausoa da.

Bigarrenik, PSNk proposaturiko araubidea atzerakoia da, inondik ere. Egiten dituen proposamenen bitartez, kosta ahala kosta lortu nahi du ikasle euskaldunei euren ikasketak euskaraz egitea eragozteko. PSNk, lege proposamen honen bidez, euskarazko irakaskuntza hautapen libreko kredituetara eta, asko bailitzan, gehienez ere irakasgairan bat gehiagora mugatu nahi du, eta are gehiago: irakasle-ikasle-ikasketetako euskarazko lerroak izateko ere Nafarroako Parlamentuaren baimena eskarazi nahi du.

Hirugarrenik, PSNren proposamenak ez du inolako errespeturik agertzen unibertsitate-autonomiaren printzipioarekiko. Unibertsitatearen alorrean, botere publikoen jardunak mugatu behar du unibertsitateko erkidegoaren eskubideak bermatzera eta, unibertsitate publikoaren kasuan, behar diren funtsak helaraztera. Lege proposamen baten bitartez euskararen normalizazioari mugak eta gehienekoak ezartzea unibertsitate-autonomiaren esparruan eskua sartzea da, nafarron kultur ondareari eraso egiteaz gain.

Parlamentari honek aurkezturiko zuzenketak hizkuntza-eskubideen eta unibertsitate-autonomiaren errespetuan oinarriturik daude.

## XEDAPENEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

### 18. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**MILAGROS RUBIO SALVATIERRA**  
ANDREAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposaturiko testu artikuludunean jasota dago.

### 19. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Haren ordezkari honako testu hau jartzea:

“Xedapen gehigarri bakarra. Foru lege honetako xedapenak goi mailako eta unibertsitate mailako zentro publikoetan aplikatuko dira, orain diren guztietan eta Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean izan daitezkeen guztietan.

Zioak: Proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

### 20. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen iragankor bakarra. Nafarroako Unibertsitate Publikoak bertan euskaraz izanen duen araubidea ezarri arte, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aplikatuko da.”

Zioak: Proposaturiko testuarekin ados ez egotea.

### 21. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen indargabetzaile bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:



“Xedapen indargabetzaile bakarra. Foru lege honen aurka doazen xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira.”

Zioak: Proposaturiko testuarekin ados ez ego-  
tea.

## 22. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
ANDREAK AURKEZTUA

Xedapen indargabetzaile bat gehitzeko zuzen-  
keta.

“Xedapen indargabetzailea. Foru lege honek ezarritakoaren aurka doazen xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira”.

## 23. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
ANDREAK AURKEZTUA

Xedapen indargabetzaile bat gehitzeko zuzen-  
keta. Hona testua:

“Foru lege honek ezarritakoaren aurka doazen xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira”.

Zioak: Proposaturiko testua osatzea.

## 24. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapena aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Azken xedapenak.

Lehenbizikoa. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren erregelamenduzko xedapenak emateko.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Zioak: Proposaturiko testuarekin ados ez ego-  
tea.

## 25. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**  
ANDREAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan lehena gehitzeko zuzen-  
keta:

“Lehena. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honetan xedatutakoa aplikatu, garatu eta betearazteko behar diren erregelamendu-xedapenak eman ditzan.”

Zioak: Proposaturiko testua osatzea.

**ZIOEN AZALPENARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

## 26. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Haren orde zuzen honako testu hau jartzea:

«1978ko Konstituzioa jatorri izan duen Estatuak aitortu du errespetatu eta babestu beharreko ondare kultural komuna direla Espainiako herrien kultura, tradizio, hizkuntza eta instituzioak.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 9. artikuluko Espainiako Konstituzioko 3.2 artikuluko hizkuntzen koofizialtasunaren printzipioa islatu zuen. Nafarroako Foru Komunitatean “gaztelera da hizkuntza ofiziala” (Foru Hobetzearen 9.1 art.) eta “euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan [...]”. “Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorra abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du”(Foru Hobetzearen 9.2 art.).

Horrek guztiak euskararen galeraren arrazoiak gaindiarazten lagundu ditu, oinarri hartuta gizartearen parte handi batek hizkuntzari dion estimazioa eta, orobat, hizkuntza bizitzarako nahiz komunikazio kultural eta sozialerako tresna bihur dadin duen nahia. Gizarteari jarraikiz, botere publikoek errealitate gisa hartu dute, eta hizkuntza bereki eta ofizial gisa ere bai. Euskara irakaskuntzan sartu da, eta hizkuntza arrote eta larreako izatetik hizkuntza kultu izatera pasa da, erabat baliagarria egiten duten termino zehatzez hornitua, eta hain-

bat arlotan presentzia duena: hezkuntzan, literaturan, hedabideetan eta ikerketa akademikoan.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen zioen azalpenean, euskararen arautzearen printzipioak ezarri ziren Foru Hobetzearen 9. artikuluekin bat. Hizkuntzari, balio kultural, sozial eta identitatearen arlokoa aitortu zitzaion; hizkuntza, giza komunikaziorako tresna nagusia denez, giza harremanetako funtsezko oinarri bihurtzen da, kolektibitateari bere identitatea ematen dion elementu, eta gizarteetako kideen elkarbizitza eta ulermenerako faktore. Historiaren sinbolo eta lekukotasun-emaile izaten da hizkuntza; izan ere, erabiltzen duen herriaren esperientzia kolektiboa gorde eta transmititzen du belaunaldiz belaunaldi.

Euskara, Nafarroan, hizkuntza fenomenoaren izaera dinamikoaren eta bertan parte hartzen duten faktoreen konplexutasun eta aniztasunaren eraginpean dago oraindik ere. Horiek etengabeko gorabeherak sortu dituzte historian barna komunitateetako hizkuntzen zabalera eta indarrari dagokienez. Batzuen hedakuntza eta besteen atzerakada, batzuetan hizkuntzaz kanpoko arrazoiek eragina, dudarik gabe nabarmenenak dira. Aldaketa hauetan, maiz komunikazioaren oinarri diren kontrako jarrerak izan dute esku. Jarrerak hauek, hizkuntzetan arrazoirik gabe elkarrengandik urruntzeko indarra aurkitzen dutenek, edo hizkuntz aniztasunak berekin daukan barne-barneko aberastasuna ikusteko gauza ez direnek bultzatu dituzte.”

Nafarroako herriaren identitatea dituen ondare kulturalak egoki babestuz aldeztu da, zeren eta “Nafarroa bezala beren ondarean hizkuntza bat baino gehiago edukitzeaz ondrazten diren Komunitateak, altxor hori begiratu eta babestera behartuak dira, baita hura hondatu eta galtzea eragoztera ere. Baina ondare horren zaintzea ezin daiteke egin, ezta behar ere, hizkuntzen arteko borroka eta gatazkaren bidez; aitzitik eta Konstituzioaren 3.3 artikulua ezartzen duenari jarraiki, errespetu eta babes berezia behar duten ondarea direla aitortuz.

Printzipio hauetan ezartzen da Foru Lege hau, zeinek aipatutako konstituzio agindua eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikuluan aurkitutako garatzen bait du.”

16/1986 Foru Legeko 2. artikulua bi hizkuntzak ezagutu eta erabiltzeko aitortzen duen eskubideak eskatzen du hezkuntzan presentzia izan dezatela. Horrela ulertu zuen Nafarroako Foru Diputazioak, konpromiso eredu garria erakutsiz zer

garai zen kontuan hartuta; “jabetzen baikara arazoaren larriaz eta gure balio kulturalen zaindari gisa dugun arduraz”, zioen 1972ko abenduaren 15eko erabakian.

Foru legearen funtsezko helburuen artean dago euskararen ezagutza babestea eta “euskararen irakaskuntza bermatzea borondatezkotasun, mailakatze eta begirune erizpideei jarraiki” (1.2.a) eta c) letra). 19. artikulua honela dio: “hiritar guztiek dute hezkuntza mailetan irakaskuntza euskaraz eta erdaraz izateko eskubidea”. Hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidearen (Konstituzioaren 3. artikulua, Foru Hobetzearen 9. artikulua eta foru legeko 2. eta 6. artikulua) gauzatzea da.

Unibertsitate maileri dagokienez, 21. artikuluan besterik ez da espresuki aipatzen: “Nafarroako Gobenuak, bere eskumenen esparruan, behar diren ekintzak aurrera eramanez, irakaslegoaren prestakuntzarako goi-mailako zentruen ikasketak planek euskarazko irakaskuntzarako beharrezko den irakaslegoaren gaikuntza egokia bermatzen.” Hor ez da arautzen hizkuntza ikasketak planetara eramateko gaia; Gobernuari agindu bat ematen zaio, ordea, prestakuntza-ekintza horiek sustatu dituzten, eta, horrenbestez, izan daitezkeen euskarazko irakaskuntza emateko gaitasuna duten irakasleak.

Horrek ez du esan nahi, ordea, legeak ez duen irakaskuntzari buruzko arau orokorrik, eta unibertsitateko irakaskuntza sartzetik ez dagoenik arau orokor horien pean eta herritarrek hizkuntza ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidearen pean (2.1 artikulua). Foru legearen helburua da “euskararen erabilpen normal eta ofiziala arautzea (...) irakaskuntzan” (1.1 art.), eta funtsezko helburuetako bat da “euskararen erabilpen eta irakaskuntza bermatzea borondatezkotasun, mailakatze eta begirune erizpideei jarraiki” (1.2 art. c) letra) 19. artikulua adierazpen argi eta garbia egiten du: herritarrek irakaskuntza euskaraz eta erdaraz izateko eskubidea dute “hezkuntza mailetan”, hots, guztietan, hurrengo arauetan ez baita bat ere kanpoan uzten, ezta unibertsitate maila ere. 19. artikulua aipatzen dituen kapituluak arau orokorrak ematen jarraitzen dute; gainera, eskubidea aipatzen dute behin eta berriz, eta, eskualdearen arabera, betebeharrak bat edo beste ezartzen dute administrazioarentzat: eremu euskaldunetan “ikasle guztiek irakaskuntza hartuko dute” (24.1 art.) eta eremu mistoan euskara “irakaskuntzan” sartuko da, hau da, hezkuntza maila guztietan (19. art.).

Horrelaxe ulertu zuen Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietako salak,

zeinak 1998ko abenduaren 9ko epaian honela baitzioen: "Ez da egia Euskarari buruzko abenduaren 15eko 16/1986 Foru Legeak ez duenik hartzen unibertsitateko irakaskuntza. Lege horretako 1. artikulua irakaskuntza aipatzen du, besterik gabe, eta 24. artikulua eta 26. artikulua unibertsitateko eta unibertsitateaz besteko irakaskuntzaren artean egiten duten bereizketa bakarra 25. artikuluko 2. idatz-zatikoa da, non berariaz aipatzen baitira unibertsitateaz besteko mailak. (...) Nafarroako Unibertsitate Publikoak Iruñean dauka egoitza, hots, eremu mistoan (5. artikulua b) letra), baina ematen duen zerbitzuak Foru Komunitateko lurralde guztia hartzen du; beraz, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuek, euskara dela eta, indarrean diren legeak aipatzen dituztenean (90. art. h) letra), ulertu behar da euskarari buruzko legeak ematen dituen arauak ari dela, zeinak aplikazio orokorrekoak baitira; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen lege batek bereziki arautu dezan euskararen erabilpena unibertsitateko irakaskuntzan. Horiek horrela, aipatu xedapenekin bat dator euskarazko hezkuntza-lerro bat sortzea gaztelaniazko bat dagoeneko baden ezagutza-arlo batean."

Socialistas del Parlamento de Navarra, Eusko Alkartasuna eta Askotarikoa-Ezker Batua Parlamentuko taldeek Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu zuten, eta, beharbada, unibertsitateko irakaskuntzari buruzko erreferentzia zehatzik ez izateak eraginen zuen artikulua bat gehitu zedin proposatzea (20 bis artikulua); honela zioen: "Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak, zeinek bere eskumenen esparruan, beharrezko neurriak hartuko dituzte euskarazko eta euskararen irakaskuntza bermatzeko lanbide-heziketan eta unibertsitatean, hurrenez hurren, eskariarekin bat."

Nafarroako Unibertsitate Publikoa apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legearen bidez sortu zen, eta eginkizun hau esleitu zitzaion: "Nafarroako goi mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa, irakaskuntza, azterketa eta ikerketaren bidez" (1. art.). Konstituzioko 27.10 artikulua unibertsitateari aitortzen dion autonomia erabiliz, unibertsitateak Estatutuak onetsi zituen, non Euskarari buruzko Foru Legeak eremu mistoko irakaskuntzari buruz ezarritako printzipioak jaso baitzituen. 6.1 artikulua xedatzen du: "Gaztelania eta euskara dira Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere egiten dituen hizkuntzak eta beraz, unibertsitari guztiak dute biak jakin eta erabiltzeko eskubidea."

Hizkuntza-eskubidea 102.1 artikulua aitortu zuen, non hau xedatu baitzen: "Unibertsitateko

Komunitateko partaide guztiak dute gaztelania eta euskara erabiltzeko eskubidea, ondoko artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eta Unibertsitatearen esparruaren barruan inor ez da bereiztua izango bi hizkuntzetako edozein erabiltzeagatik." Halaber, 103.1 artikulua hauek ere eskubideak zirela aitortu zuen: harremanak euskaraz izatea, euskaraz hitz egitea, lanak euskaraz aurkeztu eta argitaratzea eta "Unibertsitateak euskaraz eskaintzen dituen irakasgaietan irakaskuntzak euskaraz jaso eta eskaintzea, eta lanak, azterketak edo frogak egitea." Unibertsitateko organoak "behartuta daude eskubide hauek bete daitezten bermatzera" (103.2 art.) Unibertsitateko jardueretan euskararen erabilera normalizatzeko plangintza eta neurriak aurreikusten dira 104. artikuluan, eta esaten da unibertsitateak euskarazko irakaskuntzen garapena bultzatuko duela, gizartean dauden beharren eta eskaeren arabera; unibertsitateak euskarazko argitarapenak egin daitezten bultzatuko duela ere esaten da.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 9. artikulua Nafarroako Foru Komunitateari eskumena ematen dio hizkuntzaren araubidea ezartzeko; horren frogagarri da abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea. Gehiago osoa behar duen legea da, Foru Hobetzearen 20. artikulua ezartzen duenez. Edonola ere, arautze hori unibertsitatearen autonomia errespetatuz egin behar da, printzipio konstituzionala baita hori; Nafarroako Unibertsitate Publikoak Estatutuak onestean erabili zuen autonomia hori. Hori izan zen hizkuntza ofizial bat baino gehiago duten autonomia erkidegoek erabilitako bidea; 18/1986 Foru Legeak ez zuen berariazko arautzerik egin, baina horrek ez du esan nahi gaiari buruzko lege-hutsunerik dagoenik. Unibertsitatearen autonomia kontuan hartuta, Parlamentuak ezartzen duen lege-markoak autonomia hori gauzatzeko aukera eman behar du; hau da, arauak ezin dira zorrotzegiak izan, bestela autonomia hori desitxuraturik eta edukirik gabe gera daiteke.»

Zioak: Proposatutako testuarekin ados ez egotea.

## 27. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI  
**IGOR ARROYO LEATXE**  
 JAUNAK AURKEZTUA

Zioen azalpena honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

«Zioen azalpena:

Unibertsitatea oinarritzko tresna intelektuala da, bere eginkizuna betetzen dueneko gizartearen zerbitzuan dagoena eta, beraz, bertako beharrian kultural, sozial eta ekonomikoei erantzun behar diena. Euskararen normalkuntza Nafarroako gizartearen beharrietako bat da eta, beraz, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren erronka garrantzitsuenetariko bat.

Unibertsitatearen esparruko hizkuntza normal-kuntza ikasleen eta, oro har, unibertsitateko erkidego guztiaren hizkuntza eskubideetan oinarriturik dago. Hizkuntza normalkuntzaren oinarritzko bi helburuak dira ikasketak euskaraz egin nahi dituen ikasle orok bere nahia gauzatu ahal izatea eta euskaraz komunikatu nahi duen unibertsitate-erkidegoko kide orok aukera bera izatea.

Bai gaur egungo legediak bai Nafarroako Unibertsitate Publikoko estatutuek euskararen ofizialtasuna ezarri dute eta, ondorioz, euskaraz ikasi eta komunikatzeko eskubidea. Alabaina, orain arte urrats gutxi eman dira helburu horretarantz. Lege honek adierazita uzten du hizkuntza eskubideekiko begirunean oinarriturik unibertsitatearen esparruan euskararen normalkuntza garatu beharra, eta beste bultzada bat ematen du bide horretan barrena.

Lege honek barnean hartzen ditu, alde batetik, botere publikoek herritarren eskubideak errespetatzen direla zaintzeko daukaten eginkizuna, eta, bestetik, unibertsitate-autonomia. Botere publikoei dagokie unibertsitate-erkidegoaren hizkuntza eskubideak bermatuko dituzten oinarri orokorrak ezartzea. Unibertsitateari dagokio hizkuntza normalkuntza erdiesteko jarduerak erabakitzea. Eta, azkenik, Nafarroako Parlamentuari dagokio unibertsitateak prestatuturiko plangintza betetzeko behar diren funtsak helaraztea.

Azken batean, lege hau apustu bat da, unibertsitateetik Nafarroako herritar guztien ondare kulturala zaindu eta berreskuratzearen aldekoa.»

Zioak: Zuzenketa hau, bai eta parlamentari honek aurkezturiko gainerakoak ere, funtsezko hiru arrazoiren ondorioa dira:

Lehenik eta behin, PSNk aurkezturiko lege proposamenak argudiatzen du, lehenago Gobernuak aurkezturiko lege proiektuak egiten zuen bezalaxe, unibertsitatean euskara arautu gabe omen dagoela. Hori, ordea, ez da inondik ere horrela. Lanpostu elebidun baterako deialdiari aurkeztutako errekurtsioa zela eta, Nafarroako Auzitegi Nagusiak, 1999ko otsailaren 25ean emaniko epai batean, honela zioen besteak beste:

“NUPek Iruñean dauka egoitza, hots, eremu mistoan, baina ematen duen zerbitzuak Foru Komunitateko lurralde guztia hartzen du; beraz, Unibertsitateko estatutuek, euskara dela eta, indarrean diren legeak aipatzen dituztenean, ulertu behar da euskarari buruzko legeak ematen dituen arauz ari dela, zeinak aplikazio orokorrekoak baitira; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen lege batek bereziki arautu dezan euskararen erabilpena unibertsitateko irakaskuntzan”.

“Euskara irakaskuntzara gutxinaka, progresiboki eta nahikoa dela ekarriko da, zentroetan euskarazko irakaskuntzako lerroak sortuz eskatzen dutenentzat.”

“[Justifikatuta dago] euskarazko hezkuntzalerro bat sortzea gaztelaniazko bat dagoeneko baden ezagutza-arlo batean.”

Baieztape horiek argi eta garbi erakusten dute Nafarroako Gobernuak erabilitako argudioa aitzakia bat besterik ez dela. Arazoa ez da unibertsitatean euskara legez araututa ez egotea; arazoa da egungo arauak, euskarari buruzko legean eta NUPeko Estatutan baitaude jasoak, ez direla Nafarroako Gobernuaren gustukoak. Eta, beraz, euskarari buruzko legean ezarritakoarekin alderatuta –berez ere nahiko motz geratzen den legea–, atzerapausoa da.

Bigarrenik, PSNk proposaturiko araubidea atzerakoia da, inondik ere. Egiten dituen proposamenen bitartez, kosta ahala kosta lortu nahi du ikasle euskaldunei euren ikasketak euskaraz egitea eragoztekoa. PSNk, lege proposamen honen bidez, euskarazko irakaskuntza hautapen libreko kredituetara eta, asko bailitzan, gehienez ere irakasgairaren bat gehiagora mugatu nahi du, eta are gehiago: irakasle-ikasketetako euskarazko lerroak izateko ere Nafarroako Parlamentuaren baimena eskarazi nahi du.

Hirugarrenik, PSNren proposamenak ez du inolako errespeturik agertzen unibertsitate-autonomiaren printzipioarekiko. Unibertsitatearen alorrean, botere publikoen jardunak mugatu behar du unibertsitateko erkidegoaren eskubideak bermatzera eta, unibertsitate publikoaren kasuan, behar diren funtsak helaraztera. Lege proposamen baten bitartez euskararen normalizazioari mugak eta gehienekoak ezartzea unibertsitate-autonomiaren esparruan eskua sartzeko da, nafarron kultur ondareari eraso egiteaz gain.

Parlamentari honek aurkezturiko zuzenketa hizkuntza-eskubideen eta unibertsitate-autonomiaren errespetuan oinarriturik daude.

**28. ZUZENKETA**

FORU PARLAMENTARI  
**MILAGROS RUBIO SALVATIERRA**  
 ANDREAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Zioen adierazpen guztia, azken lerrokada izan ezik, ordeztea, honako testu honekin:

“Zioen azalpena

Erkidego baten hizkuntza eskubideak giza eskubideen funtsezko osagai dira, Aniztasun kulturalari buruzko Adierazpen Unibertsalak baieztatzen duen bezalaxe. Hizkuntza eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsalak (Bartzelona, 1996ko ekainaren 6a) 3.2 artikuluan herritarren hizkuntza eskubideak zehazten ditu.

1. Norberaren hizkuntzaren eta kulturaren irakaskuntza izateko eskubidea.
2. Kultur zerbitzuak izateko eskubidea.
3. Erakunde ofizialetan eta harreman sozioekonomikoetan norberaren hizkuntzan hartua izateko eskubidea.

Goi mailako irakaskuntzan euskararen erabilera arautzea oso da garrantzitsua hizkuntza hori berreskuratu eta normalizatzeko. Lanbide-jardueraren gure erkideko edozein eskualdetan gauzatzeko gai liratekeen profesional kualifikatuak prestatu beharko lituzke unibertsitateak, eta beste erkidego batzuetako profesionalekin lehiatzeko gai liratekeenak.

Euskarak egun NUPen duen egoera ez dator bat unibertsitateko ikasleen benetako eskariarekin, ezta Nafarroako herritarren benetako eskariarekin. Zenbait inkestatan eta matrikulazio datuetan ikusi ahal izan da erkidego honetako herritarrek zer interesa duten euskara gorde dadin.

Badira bi datu funtsezkoak: ikasle edo herritarren artean eginiko inkestak batetik, eta, bestetik, unibertsitatearen aurreko mailetan euskarazko ereduak dituzten matrikulazio-datuak. Bi kasuetan, ehunekoak txikiak izan daitezke, baina etengabe ari dira gora egiten azken urteotan. Horrela, 1999an, NUPeko Gizarte Kontseiluak berak eginiko galdeketa batean –IKEI enpresaren bidez egin zuen–, nafarren ehuneko 70ek adierazi zuen ezen NUPen euskara bultzatzearen alde zegoela. Egundun unibertsitatearen beraren datuen arabera–, matrikulatutako ikasleen ehuneko 18k euskaraz daki, eta, datozen urteetan, datu horrek gora egin lezake; izan ere, 3 urteko ikasle nafarren ia ehuneko 30 ari da D ereduaren ikasten. Begi-bistakoa

da goizago edo beranduago NUPek ikasle horiek ate-joka izanen dituela.

Aipatzekoa da, garrantzitsua baita, proiektu honekin euskarazko hezkuntza-prozesua eteten ari zaiola geroz eta ehuneko handiagoa egiten duen ikasle multzo bati; ikasleok, unibertsitatean heldu eta, euskarazko ikasketak egin ezinik gertatzen dira, eta, horren ondorioz, haiek aukera hori eskaintzen duten gure inguruko beste unibertsitate batzuetara irtetea gerta daiteke eta gertatzen ari da, edo, bestela, euskarazko ikasketak bertan behera uztea. Estatuko unibertsitateak ahalik eta ikasle gehien erakartzeko lehian hasi dira, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak, ordea, atek ixten dizkie bere “bezero” izan daitezkeenetako batzuei.

Halaber, gerta dakiguke, ez bazaigu dagoeneko gertatu, tekniko edo profesional gutxi dugula euskaraz prestatua, Euskal Autonomia Erkidegoan ikasitakoak izan ezik, euskara jakitea beharrezkoa edo egokiagoa den lanpostuak betetzeko. Egoera horrek, duda gabe, lehiakortasuna kenduko digu; izan ere, goi mailako irakaskuntzaren helburu nagusietako bat da lan merkatua hornitzea hark eskatutako pertsona kualifikatuz.

Euskarari buruzko legeak, nafar guztientzako legea baita, eta unibertsitateko Estatutuek, 6, 102 eta 103. artikuluek hain zuzen, berariaz aitortzen diote unibertsitateko komunitateari gaztelania eta euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea. 103. artikulua eskubide hori zehaztu egiten du, hizkuntza normalizazioaren arloko jarduketa ororentzat jarraibideak ezarriz, eta hizkuntza biak erabiltzeko eskubidea aitortzen du.

Irakaskuntzan euskararen erabilera arauturik ez dagoela dioten argudioei kontrajarririk, 6, 102 eta 103. artikuluek berariaz aitortzen diote unibertsitate-erkidegoari gaztelania eta euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea. 103. artikulua eskubide hori zehaztu egiten du, hizkuntza normalizazioaren arloko jarduketa ororentzat jarraibideak ezarriz, eta hizkuntza biak erabiltzeko eskubidea aitortzen du.

Goi mailako eta unibertsitate mailako irakaskuntzan euskararen erabilera arauturik gabe dagoela dioten argudioei kontrajarririk, ohartarazi behar dugu ezen, gure ustez, hori ez datorrela bat Foru Komunitateko araudiaren errealitatearekin; izan ere, 68/1995 Foru Dekretuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuak berretsi zituen, eta haietan arautu egiten da euskararen erabilera NUPen.

Hala ere, komenigarria dirudi Nafarroako Parlamentuak erantzuna ematea Foru Komunitatean

euskarazko goi mailako ikasketak egiteko dagoen eskariarekiko izan den jokabide ustez arretagabeari, eta horrela herritarren hizkuntza eskubideak berma ditzala, goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautuz.”

Zioak: Zioen adierazpena proposatzen den artikuluko aldaketarekin bat etorraraztea.

## 29. ZUZENKETA

### FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

«Indarreko ordenamendu juridikoak gure hizkuntza-aberastasuna ezagutzen du, eta euskara Nafarroako hizkuntzetako bat dela aitortzen du.

Halaber, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak, zeinak euskararen erabilera arautzen baitu, euskararen arauketa- eta eskakizun-mailak jorratzen ditu, baina betiere izaera ofiziala aitortzen dio euskarari.

Horrela, 18/1986 Foru Legeak bere funtsezko helburuen artean sartzen du nafar herritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidea

babestea eta hizkuntza horren garapena Foru Komunitatean babestea, haren erabilera eta irakaskuntza bermatuz. Hala ere, aipaturiko foru legeak ez dio heltzen euskara unibertsitate-mailan irakatsi eta erabiltzeari, eta xede hori betetzera dator lege hau.

Nafarroako Unibertsitate Publikoa, zeina apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legearen bitartez eratu baitzen, Nafarroako gizartea bere osotasunean garatzeko beharrezkoa betetzera dator, Foru Komunitate guztiaren interesak asetzeko asmo logikoaz. Beraz, begi-bistakoa da unibertsitate horrek Nafarroako unibertsitate-ikasleen beharrezkoei erantzun beharko diela, berdin delarik ikasle horiek Nafarroako zein udalerritakoak diren.

Ikuspegi horretatik, eta ez-diskriminatzearen printzipioarekin bat etorriz, 18/1986 Foru Legeko 3. artikuluko lehen lerroak honako hau xedatzen du: “Botere publikoek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte hizkuntzagatik hiritarrak gutxietsiak izan ez daitezen”.

Horregatik, Foru Komunitateko hizkuntzen izaera ofiziala gogoan izanik, eta diskriminaziozko tratua saihestearren, Nafarroako Unibertsitate Publikoak babestu egin behar du ikasleek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan euren unibertsitate-ikasketak egiteko daukaten eskubidea.”

Zioak: Proposatutako testua hobetzea.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> <b>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</b>
Urte bat ..... 40,27 euro	Navas de Tolosa, 1
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 1,02 »	31002 IRUÑA
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,20 »	